

Xedea, ikuspegia eta balioak

Aubixa Fundazioak Zahartzea arazo demografikoa dela dioen ikusmoldea gainditu nahi du, hots, zahartzea arazo demografikoa eta pentsio-sistamarako jasangarritasun-arazoa dela dioen ikusmoldea, aitzitik adinekoei duintasuna emanez eta bizi-itxaropenaren hazkundea belaunaldien arteko elkartasunerako, genero-berdintasunerako eta gizarte-berrikuntzarako aukera bihurtuz. Era berean, Aubixa Fundazioak konpromisoa hartzen du Alzheimer Gaixotasunak jasaten dituen estigmak desagerrarazten laguntzeko, gaixotasuna duten pertsonak amaitu gabe dagoen eta amaitzen ez den obra baten aktore nagusi bihurtuz. Alzheimerrek eta beste dementzia batzuek sendabiderik ez duten bitartean, gaixotasunaren 'kontra' eta, aldi berean, 'gaixotasunarekin' hobeto bizitzen konprometituta dauden pertsona, familia eta erakunde guztien ahaleginekin bat egingo du Aubixa Fundazioak.

Bere Patronatuaren ustez premia nabarmenak dituzten zahartzeari eta Alzheimerri lotutako ikerketa sozialaren eta ekimenen alderdiak estali nahi ditu Aubixa Fundazioak. Betiere beste edozein ekimen sozial edo instituzional ez bikoizteko asmoarekin, eta are gutxiago batez ere lankidetzara eta eskuzabaltasuna behar duen ekintza solidarioko espazio bat lortzeko lehian aritzeko asmoarekin. Guk baino gehiago dakitenak, gauzak ikusteko eta irtenbideak asmatzeko beste modu bat eskaintzen dutenak nahi ditugu gurean. Horregatik, sozialki gureak baino berritzaileagoak eta onuragarriagoak diren ekimenak eta proiektuak aurkitu nahi izango ditugu beti, guk baino hobeto edo fidagarritasun handiagoarekin lan egiten dutenen laguntzaile soil bihurtu nahi izango dugu.

Aubixa Fundazioak uste du oinarri sendoak eta berrikuntza-irizpideak eskaintzen dituela baina ez direla inola ere eskusiboak, izan ere, antolatuta dagoen gizarteko gainerako entitateekin eta erakunde publikoekin batera egindako lanarekin bat etortzea baita haien benetako balioa. AFAGI erakunde sortzaileak CEAFAn konfederatuta dauden eta Europa osoko gainerako elkarte guztiekin batera jardunez emari aktibo gisa eskaintzen duen 25 urteko esperientziaren balioa dago. Alzheimerra edo beste dementzia batzuk diagnostikatu zaizkiela erabat jabetzen diren pertsonen, horretarako azterketa egin dakien eskatu duten, aktibo izaten eta eskubide guztiak baliatuz jarraitu nahi duten pertsonen erabakitzeko ahalmena, iritzia eta lekukotasuna lehen mailan jartzeko asmoa dugu. Hainbeste emakumek jasaten duten demenziaren zimurren artean ahaztuta geratu den eta ordainez eman ezin den pairamena txikiagotzen eta isilarazten duen matxismoaren aurrean justizia egiteko helburua dugu. Boluntario adituak aktibatuta nahi dira, euren jakintza eta esperientzia profesionalak oinarritzat hartuz elkartasuna egiteko, funtzio publikoan, biomedikuntzan, psikologian, zuzenbidean, arkitekturan, teknologia berrietan, informazioan edo irakaskuntzan eguneroko zereginak egiten dituzten emakume eta gizonek euren asteroko lanaldia luza dezaten, Fundazioaren proiektuei euren jakintza eskainiz hainbat orduz.

Aubixa Fundazioa gardena da, eta ez behartuta dagoelako soilik. Proiektu bakoitza egiten ari den urratsen berri denbora errealean emanez eta haiek publikoki azalduz bakarrik gauzatu daitekeelako bere xedea. Gardentasuna oraindik parte hartzen ez dutenei proiektuekin bat egitera eta proiektu berriak proposatzera gonbidatzeko funtsezko baldintza da. Aubixa Fundazioa ez da inoiz ere salerosian arituko bultzatzen dituen ekimenen ondorioekin eta lorpenekin. Aubixa Fundazioak gune irekia eta dinamikoa izan nahi du, fundazioak lortu nahi dituen helburuez bestelakoak lortzeko edota esplizituki proposatzen ez

den onura ekonomiko edo profesional partikular bat lortzeko bere plataformak aprobetxatu nahi dituen jarduera eta ekimenak bakarrik ez ditu gustuko.

Justizia, berdintasuna eta herritarren bizi-baldintzen etengabeko hobekuntza lortu nahi dituzten gizarte zibileko erakunde guztien aliatu naturala da Aubixa Fundazioa, eta kaltetuenekin konprometituta dago. Erakundeek zergadunei eta zergadun izan ezin dutenei bermatu behar dizkieten prestazio eta zerbitzuen eskaera legitimoarekin bat egiten du. Baina horrekin batera uste du elkartasunak ez duela beti administrazio publikoen bitartekaritza behar. Gizarteak berak bere kabuz artikulatu behar duela erakundeek eskaintzen ez dituzten (arrazoiak erabat eztabaidagarriak izan arren) ondasun material edo moralak eskuratzeko. Administrazio publikoek premia sozial jakin bat ez badute estaltzen, ez da nahikoa erreibindikazio soila egitea. Ekintza zibil kooperatiboa piztu behar du, jakintzen, astiaren, bitartekoen edo diruaren borondatezko ekarpenekin, baina horrek erakundeak ez ditu dagozkien erantzukizunetatik salbuesten.

Aubixa Fundazioa zahartzearen eta hari lotutako narriadura kognitiboaren aurrean emaitzak, irtenbideak eta baita errealitateak gauzatzea ere bilatzen duen ekimena da. Ikerketa soziala, iritzi-trukea eta hainbat diziplinetako adituen arteko harremana bultzatzea du helburu, baita nahiko egiaztatutzat jotzen diren ondorioen berehalako aplikazioa ere, modu esperimentalean izan arren. Astiari astia irabaztea da auzia, eta ez dago tarterik ariketa espekulatiboak egiteko. Eredu honetan beste edozein eremutan baino egiagoa da 'onena onaren etsaia da' esaldia.